

Aramaiion jarri nahi duten parke eolikoaren proiektuaren argitalpena

Aramaioko Udalak, idatzi honen bidez, legealdi honen azken jardun-egunetan berriro ere eolikoaren inguruko erauntsi bat jasaten ari dela adierazi nahi du.

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak, maiatzaren 11an, denbora luzean zehar luzatu duen energia berriztagarrien lurralde plangintza aurkeztu zuen. Bertan, EAEn energia berriztagarrien proiektuak non jarri daitezkeen "ordenatzen" du. Udal hauteskundeak baino bi aste pasa lehenago hau publikatu izanak ez dauka izenik. Udalek 4 urteko zikloa amaitu eta berria hasiko duten honetan, alkate eta zinegotzi aldaketa fasean, hau aurkezteak ez dauka ez hanka ez bururik, eta herritarrok beraien udalerriko instituzioen bidez edozer esan edo alegatzeko aukerak asko murrizten ditu.

Honez gain, deigarria da, gure kasuan behintzat, enpresa konkretu batek egin nahi duen parke eolikia bere horretan jasotzea lurralde antolamenduan. Eusko Jaurlaritzak zer egin du, enpresen araberako lurralde antolamendu bat? Zentzu honetan, gure ustez, lurralde antolamendu batek gauza asko hartu behar ditu kontuan, eta ez soilik enpresa baten edo besteren interesak.

Eta guzti hau gutxi balitz, orain, Statkraft-ek gure udalerrian egin nahi duen proiektua publikatu du. Beraien baliabideak aprobetxatuz, ahal dutena azkartu nahi dute, jendeari eta udalerrioi eperik eman gabe, gauzak ganoraz eta bere osotasunean aztertu eta gure interesak defendatzeko.

Goiko betikoen helburu eta moduek ez dute sekula herritarren iritzia garatzen utzi, interes publikoaren izenean dena posible balitz bezala.

Guzti honen aurrean, Aramaioko Udalak, herritarren iritzia jasotzeko hasita daukan prozesua bukatuko du. Jasotzen denaren arabera, udaletxeak irmoki defendatuko ditu herritarren nahiak. Beste alde batetik, Udalak, Aramaioko herriaren eta herritarren interesak eta ongizatea babesteko, juridikoki eta teknikoki dena aztertzen ari dela eta behar beste alegazio tekniko egingo dituela adierazten du.